

# Berriain osatuz

IÑAKI CAMINO JOSEBA A. LAKARRA  
(EHU) (EHU)

Aspaldidanik sortua du Berriainek jakinmin nabarmena, hala idatzitako bi liburuengatik nola idazlearen beraren sorterriagatik. Anselmo de Legardak ongi dioenez, hiru mende eta erdiko hautsa hedatu da hain garrantzi handikoa den idazlearen —nafarreraz idatzi duen muntako lehen idazlea bera da— bi liburuen azalen gainean. Egun Jimeno Jurioren lanari esker (*FLV* 1988, 248) badakigu ziurtasunez Izarbeibarko Uterga herrixkan softü zela, uste duenez 1566. urtearen aldera, eta herri berean hil zela 1633.ean, *Doctrina Christiana escrita en Romance y Bascuence lenguajes de este Obispado de Pamplona* edo *Doctrina Christioarena Euscaras* (1626) idatzi eta zazpi urte beranduago. Ordea, gñ 1621.ean idatzitako *Tratado de cómo se ha de oyr missa, escrito en romance, y bascuence, lenguajes de este Obispado de Pamplona* lanari buruzko berri ematera gatoz oraingoan.

*Tratado* honi buruzko lehen bibliografi berriak Vinsonek emanak dira deskribapen xehean bere *Essai-ren Complément et Supplément*-ean (1898: 538-539).<sup>1</sup> Atzerago Larramendi bera dugu, *Corografía*-n eta hiztegi hirukoitzean Berriainen lana aipatu zuena, baina *Doctrina*-z baizik ari ez denez, pentsa daiteke *Tratado*-a ez zuela ezagutzen.

Julio Urkixok *RIEV*-en idazten zuenez (1914: 337): “se creía que no había en el país ejemplares de los dos libritos en vascuence navarro del licenciado de Uterga, Berriain, y últimamente ha aparecido un ejemplar de cada uno de ellos”. Baina biziki berandatu da —eta berandatzan ari oraino ere— lan hauen bigarren aldiz argitara ematea. 1980ko urtean kaleratu zen bigarren aldiz Hordago argitaletxeak aterarik euskal literaturako beste hogeita zortzi lanen faksimilekin batean meza entzuteko *Tratado*-a.<sup>2</sup> 1980ko honetan, azken orriak ertzak janik daude 111. orritik aurrera.

(1) Anselmo de Legardak (“El licenciado D. Juan de Berriain abad de Uterga y escritor vasco”, *BAP* 14, 1958, 18) eta Pérez Goyenak diotenez (*Ensayo de Bibliografía Navarra*, 2. liburukia, 1949, 175-176, Iruñea), Bonaparteren alean oinarritu zen Vinson bere deskribapenerako. Vinsonek ale bakarra ezagutzen zela idatzi zuen. Ale hau Chicago-ko Newberry Library-n zegoen 1969.ean. Pérez Goyenak dioenez, bada beste bat Julio Urkixoren liburutegian eta are azala falta duen bat Madrileko San Isidro liburutegian (gurea, seguruenik, cfr. 3. oharra). Angel Irigarayk idatzi zuenez (“El Tratado de oír missa euskérico de Berriain, abad de Uterga”, *FLV* 2, 1969, 291) bada beste ale bat José M. de Huarte Valdeterrazoko markes iruinsemeak zuena, ere Irigarayren lanean ageri da, Donostiako Urkixo liburutegian Bonaparteren alearen mikrofilmea dagoela.

(2) Dirudienez, Juan Mateo Zavala frantsizkotarraren *El Verbo Regular Vascongado del dialecto vizcaíno* argitara eman gabe gelditu zen 1980.ean diru arazoak medio Hordago argitaletxea, berau baita hogeita hamar liburuko sail hura osatzeko falta den bakarra.

Madriren (Complutense-ko Filologi Fakultatean, 19884 zb.)<sup>3</sup> aurkitu dugun beste ale batek orri guzti hauek osorik dituenenez, horien faksimila hemen emateari egoki iritzi diogu, nafarrera zaharraren azterketarako hainbesteko garrantzi duen idazle honek horrenbeste merezi duelakoan. Hordagoren argitalpenean aditzera ematen denez, berek erabili orijinalean 115 eta 116 orriak falta dira, baina inprimategiaren paginazio hutsa gertatu zen 1621eko argitalpenean, eta beraz 114. orritik 116.aren atzekaldeko orrialdera dagoela dirudien jautzia ez da egiazki jautzi, paginazio hutsa baino.

Ordea, orain arteko bibliografi berriak alde batera utziaz, aipa dezagun garaia dela gure idazlearen 1626.urteko *Doctrina*-k ere bere bigarren argitalpena ukan dezan, eta lan hori ere bidean da, aurki argitaratuko baitugu doctrina honetaz ezagutzen den *unicum*-ean oinarritutako edizioa.<sup>4</sup> Ez da guk uste Beriain ezkutuka estalgunean eduki daitezkeen idazleatarik, ez idatzi zuen garaia gogoan izanik, ez zerabilen hizkeraz denaz bezanbatean. Ez zaigu gaizki etorriko Beriainen doctrina; artean 1561.ean Iruñean edo Lizarran argitara eman zen Sancho de Elsoren *Doctrina Christiana y pasto espiritual del alma para los que tienen cargo de almas y para todos estados en castellano y bascuence* ere agertuko ahal da non edo non!

(3) Horren berri izan genuen Mercedes Dexeus-ek zuzendutako eta Dirección General del Libro y Bibliotecas-Biblioteca Nacional erakundeek argitaratu *Catálogo Colectivo del Patrimonio Bibliográfico Español. Siglo XVII, B-Cañ*-eko 1665. sarreraren bitartez. Bertan esaten denez gure ale honek azala falta du eta *Catálogo* hori prestatu dutenek Pérez Goyenarengandik hartu dituzte beren datuak.

(4) Nafarroako Gobernuak Iñaki Camino eta Joseba Andoni Lakarraren *Nafarrera zaharra: testu bilduma eta bizkuntz azterketa* onartua du epe laburrean kaleratzeko. Bertan argitaratuko dira Beriainen bi liburuez gain Elizalde, eta 1745 aurretik ezagutzen diren Nafarroa Garaiko testuak oro. Aingeru Irigaray zenaren seme den Javier Irigaray Imazek eskuzabal utzi digu *Doctrina*-ren *unicum*-a mikrofilmatzen 1993ko neguan. Javierrek dioskunez, alea Nafarroako Ollakarizketa herrixkan eskuratu zuen mediku lan zenbaiten trukean bere aitaxi zen Pablo Fermin Irigarai "Larreko"-k, gero Julio Urkixoren liburutegian aldi batez egon bazen ere: "En un rarísimo libro titulado *Doctrina en romance y bascuence*, de D. Juan de Beriain, Abad del pueblo de Uterga, que perteneció al articulista y ahora es propiedad del cultísimo publicista y director de esta R.I.E.V., don Julio de Urquijo..." (A. Irigaray, "Documentos para la Geografía lingüística de Navarra", *RIEV* 26, 1935, 602). Bada honen berri Larrekoren artikuluko batean: "Nere pozaren aundia! Zartzale naiz ta", *Napartarra*, 1918/XI/16. Ikus orain artikuluko hori Iñaki Caminok prestatu Larrekoren *Lekukotasuna* liburuan, *Klasikoak* 62, Donostia, 1992, 127-8.

### *Tratacenda nola*

yago: Erregue espantatu cen, etzuen finestatu xoyl, baya guelditucen cuydadotan: ematenciola, cer penlatu, determinatu çuen errancionagatic yllcera vere emaztearen limosneroa, baya disimulatuago eguiteagatic, loancen egun artan verean saldigañean campora, passatucen galcina labebaten aldetic, non aribaycira guizon baçuec labeari su ematen, onetan ariciradeney errancioten secretuan, eta manatu cituen ece vere jaureguico mutil batrequi igorricociotela erratera ea eguin duçuen Erregueac manatucinduztena, eta hau onla erran eta bereala egocizaçue labera, ceren ala conuenicela, respondatucioten puntualquiro eguinençutela aren Magelladeac manatu bezala. Biaramun goycean, ygorriçuen Erreguec vere emaztearen limosneroa mandatu onequi, baya laun goycoac nay yzandaçuen libratu peligró onetatic manera onetan. Guizon hononeo çuen deuocio acostumbraçençuen

### *ençun bearden Meza. III*

cençarena egun oros Meza ençutea, cioayela bada vere manatu cizayona eguitera, eta passacencela Elizaco arribatefic joçuten ezquila adjezaten Meza erratera: cioayela Sacerdotea, nayçuenac sartu Mezaren ençutera: vere costumbre onarequi cumplicea gatic Erreguiaren limosneroa sartucé Elizara Meza ençutera, Meza ençuten cegon vitartean, desseorequi Erregueac jaquin leen bayo leen ylçen, ygorriçuen verec mutila imbidias aui fatuçena, eta nola ezpayçuen cuydadoric youçun Elizan sarceas, eta ez Meza ençuteas baycic, leen baño leen vere jaunari yl berria eramocociola joancen leenic yonere guelditu bague. Galcina labera elducen beçala errancioten an ari ciradeney, ea eguinçuten Erregueac manatucituena. Elducizayzquion bereala, eta egociçuten labera, eta anacabatu cen, bereca culparic etzuena, vere deuocio onarequi cumplicu, eta joancen vere mandatuaren

### *Tratacenda nola*

datuaren eguitera elducenean errantioten labeari su ematen ariciradene y Erreguec ygorcen niaue jaquin deçadan, eta eguinduçten, hare manatu. ciudustena, eta nola imbidias acufatuçuen a joan yzandubaycen leen, eta labera egocibayçuten, reispondatucioten bayyez. Ioancen respuesta onequi Erreguegana ycusiric hau viciric, eta ycasiric nola bercea ylleen, informaturic ongui negocioas aurquenduçuen gayzqui, eta falsoquiro acufatu çuela Erreguia, eta aren limosneroa, eta ala culpatic etzuen a Elizan sartu Mezaren enzutera, eta Sacramentu sanduaren adoracera, eta ala latin goycoac libratuçuela, eta berce bellacoa imbidiofua falsoquiro acufatuçuen a ala Erreguia, nola aren limosneroa vere becatuaren pena, eta gaztigutan gaztigatuçuela, eta ala ez Erreguia andreac, eta ez guizon onec çutela culpatic.

San Antonino Florenciacoac escriuacendu, atraciradela lay egunbates,  
bi

### *ençun bearden Meza.* 112

bi lagun ciudade batetic, campora placera arçera heyçara, ohetatic barac yduquiçuen çuydado Meza ençuteas, eta berceac ez, ciacela bada biac junto videas: asicen dembora nastecacen ayces, eta ciacen odehyac cargatus eguitè cituela ortofas ayn andiac, eta oñazturac, ece baycirudien munduac ondatu bearçuela. Onetan ençunçuten oyubat aycean, erratençuela, emoc, emoc, gueldituciraden espantaturic, eta arriaturic. baciacen vere videas, honla ciacela heroricen ozmiarribat, eta emancion Mezaric ençun etzuen desdichatuari, eta guelditucen yllic. Berce laguna guelditucen ayn espantaturic, eta casic juyzioric bague, etziaquiela cer eguin: passatucen aurrera vere videas honla ciala ençunçuen berce oyubat, erratençuela emoc, emoc, baya bereçuela ençunçuen berce oyubat, errateçuela, ecin ciroquetat, cerè ençun dic, *Verbum caro factum est*, baycen erratea, egun arçan ençunçuela Meza ceren  
Mezaren

### *Tratacenda nola*

Mezaren azquenean erratenda Iuan-  
doneluanes Euangelistaren Euange-  
lioan non baytaude escriuaturic, ytz o-  
hec: ceñetan adicera ematen bayçaygu  
nola Iaungoycoaren Semea eguincen  
Guizon, ceñen medios libratu bear  
baytugu gayz, eta peligro gucieratic  
eta erdezi ondafun guciac. Argatic er-  
rauen ezluquela Mezatic yorquere  
atrabear Euangelio sanduan ençun  
bague.

Cessarioc cõtacendu peregrino bat  
ceriçola Vinando, juancela berce lagũ  
batzuequi erromeriã Ierusalena, guer-  
tamcen ece Ierusalena elduric onen  
lagunec Meza ençun, eta determinatu  
çuten partucera Bazcoa Erresurrecioco  
egunean, Vinandoc errancioten lagu-  
necy egun Bazcoa eguna da, arrazio da  
egun Sanduonetan gauden emen, eta  
oficiac ençundizagun. Etçuten nay yzã  
da baycie partituciraden bereala, gui-  
çon honau guelditucen egunartaco  
oficioac ençuteagatic, biaramunean  
partitu

### *ençun bearden Meza. 113*

partitucen lagunen arzean, juntatuciza  
yon guiçon honratubat zaldigañean  
cioala, solas eman, eta errancio nondic  
zatoz guiçon hona orla ceurori bacar-  
ric, respondatucion Ierusalendic nator  
lagunac naynuen gueldicitecen egun  
arteraño, eta erzuten nay, eta noaye  
neurau, zaldigañean cioanac errancio  
yganzaytez ene zaldionen anquetan,  
ygancen bereala, eta egun artan bereã  
ezarriçuen vere hiriaren aldean, eta  
errancion Iesu Christori emozquioçu  
graciac çeyn honrratu, eta cerbizatu  
baytuçu egun Meza ençuteas, eta ofi-  
cioac ençuteas, eta onengatic vtzi bay-  
tituçu lagunac, eta ceren ygorribay-  
nau ezarrizayzadan ayn vide vrrutitic  
egun bates çure errian. Hara non den  
çure echea çoas, eta errandrazoteçu  
Iaun goycoac çure baytan eguinduen  
marauilla ayn andia. Aydec, eta adif-  
quidec, ycusiçuten bezala erranciotẽ,  
non dituçu lagunac, respondatucio-  
ten, egun goyccan nengon Ierufale-  
nen,

*Tratacenda nola*

nen, eta ayec atra ciraden atzo, ni an vtziric, eta gueros eztitut ycusí, baya etzuten sinestatu, aytceitc erratencioten, guíçon oni heratuçayo, errandezala egun egonic Ierusalenen, datorrela ayn vide vrrutitc. Nola batec, eta bercecc erratē baycioten heratu çayo, joançen sobratu cizayon diruarequi Iuandone lacuera, eta andic etorricen berce lagunac Ierusalenetic etorribay no len. Ardic dembora auniz passatu eta etorriciraden lagunac, hiricoec ycusicitusten bezala erratencioten, Vinando Bazcoa biaramunean etorricen, eta errandraugu çuec Bazco egunean partitucinatela Ierusalendic hura an vtziric, eta eztagu sinestatu. Respondatu cieten bayez, harc errancisquioten guciac ciradela eguiac, onequi emancioten sinefte, eta barrayatu cen marauilla hau herri ayetan gucietan, eta laun goycoa alabatuçuten.

Beda hobrratuac Ingalatierraco historian oguey eta vigarren capituloan  
escruiua-

*ençun bearden Meza.* 114

escruiacendu Imma cerizō mutil gaztebat, batallabatean çauritu, eta artuçutela preso, eta eramo çutela cautiuo, sendatucen beçala eçarricizquioten cateac, eta grilloac, eta egunoros goyceco bedraci horduetan, verac laxacen, eta erorcencizayzquiola, eta gueldicencela libre, onen causas auzazec nayçutela veren tchetan yduqui, eta ala yzanduçuela auniz laun, eta nagusi. Batec ycusiric nola laxacen cicaçquion grilloac, eta cateac, emanciō libertatea, leen juramentu arturic ygorricociola biac ygualatu ciraden cantidadebat erreçatea gatic. Ioancē vere errira, eta ygorricion, ygoalatu ciraden cantidade erreçatea gatic. Iaquin, yzanduçuen, ece aren Anaye Sacerdotebatec egunoros arengatic erratençuela Meza, eta Sacramentu sandua alchacençunean guencē cizayzquiola loturic ceuzquien burniac, eta ala gueldicencela libre nondic etorribaycizayon libertatea yzatera.

P 2 *Capitulo*

*Tratado de como*

*Capitulo decimo, de algunas cosas que se han de hazer quando se oye Missa, y como se aya de estar en ella.*

**L**O primero que se ha de hazer es, mientras sale el Sacerdote a decir Missa, suplicar a Dios nuestro Señor le de su gracia para q̄ la oyga, de fuerte que a su diuina Magestad le agrade, y con mucho provecho suyo, diziendo. Señor mio Iesu Christo, os suplico me deys vuestro fauor, y gracia, para que con pureza de conciencia, atencion, y reuerencia esté presente en la Missa, para gloria, y alabanza de vuestro santo nombre, acordandome de todo lo que por mi saluacion hizistes, y padecistes.

Lo segundo que se ha de hazer es, estar con toda la deuocien, y atencion, y decencia que pudiere, no echado, ni reuostado,

*se ha de oyr Missa.* 117

reuostado, ni con sola vna rodilla en el suelo, ni menos parlando, o haziendo ruydo, ni mirando a vna parte, ni otra, que es poco respecto, y reconocimiento de la grandeza del Señor que allí asiste.

Lo tercero, aunque no es malo rezar oraciones vocales, mientras se oye Missa; pero es mucho mejor asistir a ella, atendiendo a los misterios que contiene como se a explicado, tratádo lo que se ha de hazer, desde el principio de la Missa, hasta el fin, que así se oye con espíritu, como quiere la Iglesia que se oyga. Baya considerando los mysterios que se han dicho. Y quando el Sacerdote habla en voz alta, si entiende Latin vaya diziendo, y sintiendo lo mismo con el afecto interior, demañera, que quando el Sacerdote se confiesa por pecador, el que oye Missa haga lo mismo, y quando el Sacerdote alaba, o pide a Dios, el tambien con el afecto interiormente le alabe, y le pida lo mismo,

P 3

*Tratado de como*

mismo y así en lo demás. Y sino entien-  
del Latín tenga intento de hazer lo que  
el Sacerdote en nombre de la Iglesia  
haze. Y las oraciones vocales, y Psal-  
mos Penitenciales, y las otras deuocio-  
nes dexelas para otro tiempo, y en nin-  
guna manera dexede ofrecer el sacri-  
ficio de la Misa, y comulgar espiritual-  
mente, que haziendolo como conuie-  
ne, sera participante de los meretimié-  
tos de Christo nuestro Señor.

Aduertese, que el que oye Misa, no  
ha de dezir cosa en voz alta, porquẽ no  
estorue al que dize Misa, ni a los cir-  
cunstances, sino en voz baxa, sin que a  
nadio estorue.

Acerca del modo que se ha de estar  
en la Misa, digamos primero, como se  
ha de estar en la Misa cantada, des-  
pues diremos como se ha de estar en la  
rezada.

La Misa cantada segun el orden del  
Missal Romano, se deue oyr parte en  
pie, y parte de rodillas, y parte assenta-  
do;

*se ha de oyr Misa.* 118

do; quando el Sacerdote salido de la sa-  
cristia dize, *In nomine Patris, & Filij, &*  
*Spiritus sancti*, el Psalmo de *Iudicame*, la  
Confesion general, y lo demás hasta  
que sube al Altar, se ha de estar de ro-  
dillas, y al Introito, y a los Quiries as-  
sentado, y quando se dize la Gloria en  
pie, y tambien quando se dizen las ora-  
ciones en las Missas cantadas de todo  
el año, excepto las oraciones que se di-  
zen cantando en dias de ayuno de en-  
tre año, y Quaresma, y Quatro Tem-  
poras, Ferias de aduiento, y en las Mis-  
sas de Requien, porque en estas Missas  
ha de estar el pueblo de rodillas, quan-  
do se dizen las oraciones, excepto las  
vigilias de Pascua de Naudad, Resur-  
recciõ, y Espiricu santo, q̄ en estos dias  
se han de oyr las oraciones cantadas  
en pie.

La Epistola se ha de oyr assentado, y  
tambien el Gradual, que son los versos  
antes del Euangelio.

El Euangelio siempre en pie, pero  
P 4 quando



## Tratado de como

Ioan. 7.

quando en el Euangelio de San Iuan dize el Sacerdote, *Et verbum caro factum est.* Y se arrodilla, tambien se han de arrodillar los que oyen Missa, y leuantar se quando el Sacerdote se leuanta, y lo mismo se ha de hazer quando en el Euangelio de S. Matheo el dia de los Reyes, y al fin de la tercera Missa de Naudad se dizen aquellas palabras, *Et procedentes adorauerunt eum.* Y tambien el Miercoles de la quarta semana de la Quaresma, a aquellas palabras, *Et procedens, adorauit eum.* Y en la Passiõ a aquellas palabras, *expirauit:* Que como se arrodilla el que dize el Euangelio, tambien se han de arrodillar los q̄ asistien, y leuantarse quando el se leuanta,

Math. capit. 2.

Ioan. 9.

Al Credo se ha de estar en pie, sino quando se dizen aquellas palabras: *Et incarnatus est de Spiritu sancto ex Maria Virgine Et homo factus est.* Que a estas palabras se han de arrodillar, y leuantar quando el que dize la Missa se leuanta,

## se ha de oyr Missa. 119

ta, acauado el Credo en lo demas hasta el prefacio asentado.

El prefacio en pie hasta que diga, *Sanctus, sanctus, sanctus.* Que entonces se han de arrodillar que en esto hazen mal muchos, que suelen estar asentados aun dichos los *sanctus*, hasta que el que dize la Missa toma la hostia para consagrar, que entonces se arrodillan, no han de esperar tanto, sino que en oyendo, *sanctus*, luego se han de arrodillar, porque entonces juntandose con los santos Angeles han de dezir: *Sanctus, sanctus, sanctus, Dominus Deus sabaoth.* Cõfessando la santissima Trinidad, y llamãdole santo Dios, de q̄ tanto se precia su diuina Magestad, bendito sea quien viene en el nombre del Señor, y esperar la venida del Salvador del mundo, y Rey de la gloria al altar, y ofrecerle en sacrificio a su eterno Padre. Todo esto es razon que se haga estando de rodillas, y de la misma manera se ha de estar hasta consumir el caliz

P 5 y en

### Trotado de como

y en lo demas de puede estar asentado hasta las vltimas oraciones, las quales se há de oyr como las primeras en pie, fuera de los tiempos que alli se dixo.

A la bendicion, que echa el Sacerdote acabada la Missa se han de arrodillar así en la Missa cantada como en la rezada, y hazen mal muchos que a la bendicion se leuantan. La Missa rezada se ha de oyr toda de rodillas, solo el Euangelio en pie, saluo aquellas palabras del Euangelio de San Iuan: *Et verbum caro factum est*. Y de San Mateo en aquellas palabras: *Et proidentes adorauerunt eum*. Y en lo demas que se ha dicho de los Euāgelios quādo se dizē cantados, como se há de arrodillar, sabiēdo el Concilio Tridentino, lo mucho que importa que los fieles Christianos tengan noticia de los mysterios que en la Missa se celebran, en la session 22. en el capitulo 8. dize estas palabras: *Ne ues Christi esuriant, ne ve paruuli panem petant, & non sit, qui frangat eis, mandat sancta*

### se ha de oyr Missa. 120

*sancta synodus pastoribus, & singulis curam animarum gerentibus, ut frequenten inter Missarum solemnia, uel per se, uel per alios, ex ijs, quae in Missa leguntur, aliquid exponant, atque inter cetera sanctissimi huius sacrificij mysterium aliquod declarent diebus praesertim Dominicis, & festis, y en el libro Sinodal deste Obispado, en el libro primero capitulo tercero, entre otras cosas que encarga a los Curas, que enseñen a sus feligrēses dize: que los dias de Domingo, y fiestas, declaren los mysterios de la Missa, por que los que no saben Latin, o leer, para poder leer los libros, que de estos mysterios tratan, de donde los han de saber, sino se los enseñan. Y de no saberlos se siguen tantos, y tan grandes daños, que van tantos a Missa, y no saben a que, y no saben que sea el sacrificio, que en ella se ofrece, y como se aya de ofrecer, y las demas cosas, que han de hazer; y de aqui es que estan como muertos de espíritu, sin leuantarle*

### *Tratado de como*

tarle al Señor, y sin hazer actos de Fè, ni de Esperança, ni de Caridad, y sin hazer otras cosas, que harian si tuuiesse noticia de los mysterios que en la Missa se encierran. Y así salen sin sacar el provecho q̄ facariã si lo supiesse. Qual es el Christiano, que si tuuiesse noticia de lo que la Fè nos enseña acerca deste mysterio, como cada vez que se dize Missa baxa Christo nuestro Señor del cielo al Altar al santissimo Sacramento, sin dexar el cielo, y que alli esta presente con la misma misericordia, y bondad, y con el mismo poder, y desseo, para perdonarnos todos nuestros pecados, por muchos, y graues que seã, que andando en el mundo tenia, y que como quando vino la primera vez al mūdo, el amor grande que tiene al hombre, le hizo venir, y que agora el mismo amor que le tiene le trae al Altar, que no le adorasse, y alabasse, y le diesse gracias a tan buen Señor, por tan buena venida, y q̄ no le amasse, y quisiesse meter

### *se ha de oyr Missa.* 121

meter en sus entrañas, y agradarle, y seruirle en todo lo que quisiesse. Quiẽ auria que saliesse sin ofrecerle en sacrificio a su eterno Padre, pues para esto viepe, para que por su medio le pidan perdon de sus faltas, y remedio de sus necesidades, concediendole los medios eficazes para saluarle. Que todo esto, y otras cosas harian si tuuiesse noticia de lo que la Fè nos enseña acerca de estos mysterios de la Missa, las quales dexan de hazer por no saberlos. Y por tanto los Curas haran grande seruicio a Dios nuestro Señor en hazer lo que manda el Concilio Tridentino, y la Synodo, explicando a los de su lugar los mysterios de la Missa, los dias de Domingo, vna vez vn mysterio, otra vez otro, y así los demas, que aunque no se haga sino por vn breue espacio, haziendose como se deve, es cosa cierta, que los hallaran muy mejorados en sus confesiones, y comuniones, y en todas las obras de virtud.

*Amar-*

### *Tratacenda nola*

*Amargarren capituloa, cer eguin bearden Meza, acoan, eta nola egon.*

**M**Eza ençutenduenac lembicico-ric eguin bearduena Sacerdotea, Sacristaniatic atracendē bitartean Meza erratera, da, otoytz eguin laungoycoari demon verē fauorea, eta gracia Meza ongui ençuteco, aren diuina Magestadeari agradaquicon bezala, erratenduela. Iesu Christo ene launa suplicacen drauçut emandrazadaçun çure fauorea, eta gracia egoteco Mezan, conciencia garuiarequi, atencio-requi, eta erreuerenciarequi, çuri agradacenzayçun bezala, oroytzen naycela enegatic ceure vician, eta heriotzean eguinciaducen ondasunes, eta passatu cinducen trabajues.

Bigarren eguin bearduena da egon aldaguien deuocio, eta atencio guciarequi. Ezta egon bear arrimaturic, eta

ez

### *ençun bearden Meza. 122*

ez belaorico solamente belaun bates, baytic bies, eta ez minzacendela bara bercearequi, eta ez aldebatōra, eta ber cera beguiracenduela, çeren bayta miramentu guti, eta gayzqui aguiriden gauza hōla egotea Iesu Christorē aurean. Yrurgartena, ez yzanagatic gauza gaystoa oracio erratea errofario, eta verce ytzes erratendiraden oracioac, gucis da obeago ohec vtziric egon viorzas pensacen, eta consideracenduela Mezan diraden misterioac, nola adicera eman bayta tratatudenean cer eguin bearduen Meza ençutenduenac lçenetic asī, eta azqueneraño: çeren honla ençutenda obequiago, eta Elizac nayduen bezala. Biaye consideratus errandiraden misterioac, eta Sacerdoteac erratendituenean ytzac Meza ençutenduenac adicendituen bezala. Latinic adicen badu, biaye horduan verē bayran erranes viorzas Sacerdoteac erratēduena, manera onetā erratēdueñā, ni becataria cōfessacē nayçayo laungoycoari

## Tratacenda nola

goycoari , eta aurrera confesfacenduela dela becararia. Alauer Meza ençutenduenac eguin bez hura vera. Eta Sacerdoteac alabacen duenean laungoycoa , edo escacen dionean conuenizayguna alauer Meza ençutenduenac, alababez, eta escabraço, hanc bezala, eta ala berce gaucetan viotzas berebaytan secretuan, eta ez yztes berce Mezan daudenec adidezaqueten bezala. Latinic eztaquienac, eta ala adicen eztauenac cer Sacerdoteac erratenduen beuca intencio, eta desseo eguitemco Sacerdoteac Elizaco ministroac eguitenduenac. Eta oratioac yztes erratendiradenac, eta Salmoac Penitenciaascoac vrcibiz berce demboreraco, eta yolaco maneras eztezala vtzi ofreciceco Mezaco sacrificioa. Eta comecacea viotzas, eta desseoleen erranden bezala: ceren ohec eguitendituela ongui yzanendu parte Meza ençutenduen horos, Iesu Christore obra, eta ondasunetan.

Aduer-

## ençun bearden Meza. 123

Aduerticenda, ece Meza ençutenduenac ez tuela erranbear yzta berce Mezan daudenec adidezaqueten bezala, baycic verebaytan baraheco, ceren Meza erratenduenac, eta ez berceac estorua eztaçan.

Nola bearden Mezan egon, lembicoric, erranenda Meza cantatuan, guero erreçatuan. Meza cantatua misale Erromacoac eracustendigunaren conforme bearda ençun baçutan chutiric, eta berce aldibaçuetã belaurico, berce baçuetan jarriric, Sacerdotea atacendenean sacristiatic, eta erratenduenac: *In nomine Patris, & Filij, & Spiritus sancti iudicame.* Eta cõfessioa, eta berce lembicico yztaç, ariqueta Aldarera ygan arteraño, egon bearda belaurico, guero alsicendenean Mezã, eta erraten: *Kyrie eleyson, Christe eleyson,* jarriric. Gloria cantacendeneã churituric, eta alauer oratioac erratendiradenean, vrte gucian: barur egunetan, Gatiçuman, Carta demboreran, eta Auentu

Q duco

### *Tratacenda nola*

duco astregunetan cantacendiraden oracioes landara: ceren ohetan egon-beardu Meza ençutenduenac belaurico, eta alauer requien Meza cantacendenean, vigilietatice beardirade atra Bazcoa eguberri bezpera, eta Bazcoa Garicumacoarena, eta Espiritu landuarena, ceren egun ohetan bearda egon chutituric berçetan bezala.

Epistola bearda ençun jarriric, eta alauer ala dagoque ariquetta Euangelioa alsì arteraño.

Euangelioa bearda ençun chutiric solamente bearda jarri belaurico Iuan done Iuaniscen Euangelioan, ytz ayec erratē diradenean, *Et verbum caro factum est.* Eta San Matheoren Euangelioan, ytz ayec erratendiradenean: *Et procidentes adorauerunt eum.* Eta Garicumaco laugarren asteco asteazque nean leycenden Euangelioan erratendiradenean ytz ayec, *Et procidens adorauit eum.* Eta pafsioa leycendenean erratendenean, *expirauit.* Ceren ohetan Euang-

### *ençun bearden Meza.* 124

Euangelioa erratenduenac jarricenda belaurico alauer beardu Meza ençutenduenac, eta jayqui Sacerdotea jayquicendenean.

Cretoa cantacendenean bearda egō chutituric solamente erratendenean: *Et incarnatus est de Spiritu sancto & homo factus est.* Meza erraten duena jarricenda belaurico, alauer beardu jarri belaurico Meza ençutenduenac, eta jayqui Sacerdotea jayquicendenean. Cretoa acauatu, eta ariquetta prefacio-rayno dagoque jarriric, pretacioa bearda ençun chutiric, ariquetta alsì arterayno erraten: *Sanctus, sanctus, sanctus.* Ceren horduan bearda jarri belaurico. Eta ala eguitendute gayzqui jarriric egotendiradenean, nola asco egoten bayta jarriric: *Sanctus sanctus.* Erranagatic, bay, eta honla egoten baytira de ariquetta Meza erratēduenac Hostia confagraceco escuetā artu arterayno, ezta ambat echeden bear baycic *sanctus*, ençundezan bezala bearda jar-

P 2 ri

## Tratascenda nola

ri belaurico .ceren horduan Ayngueru sanduequi vatean beardu Meza enquitenduenac confessatu , eta alauatu Trinitate sandua erratenduela Sandua, sandua, sandua, zarade launa Ayra, eta Semea, eta Espiritu sandua, sandua yzateas ambat preciacenda Iaungoycoa, eta ala gogotic, eta plazer arcendugula gueuren baytan erran bearditugu yz ohec, eta bedeycatua da launaren ycenean datorrena, eta echeden, honla munduaren saluaçallearen, eta ceruco Erregue, eta launaren etorceari Aldarrera, ofreciceco sacrificioan vere Ayta eternoari. Bada gauza ohec arrazio da eguinditecen belaurico daudela , eta honla egon bearda ariqueta Meza erratenduenac Iesu Christoren gorpuça, eta odola errecebitu arterayno. Guero dagoque jarriric ariqueta azqueneco oraciac errã arterayno, cerẽ ohec beardirade ençun belaurico, lëbicico oracioac bezala , hã errandẽ dëboras landara, bedeycio Meza erratëduenac azquenean

## ençun bearden Meza. 125

quenean egozrëduenean bearda egon belaurico , a la Meza cantatuan nola erreçatuan eguitendute gayzqui , bedeycioa egostendenean jayquicen diradenec.

Meza erreçatua gucia bearda ençun belaurico , Euangelioas landara, solamente bearda Euangelioan belaurico jarri, luandone luaniçcen Euangelioan erratendenean , *Et verbum caro factum est*, eta san Matheoren Euangelioan erratendenean, *Et procidentes adorauerunt eum* , eta berce errandenean. Meza cantatuetan, nola bearden jarri belaurico, Sacerdotea jarricendenean, eta jayqui, hura jayquicendeneã, jaquinica Concilio Tridentinoac auzin conuenidela , Christio fielec daquiten cerden Meza, eta nola bearden ençun, eta cerden han ofrecicëden sacrificioa, eta nola bearden ofratu , eta berce mysterioac, manacëditu arimes cuydado, eta cargu dutenac, Yganderã eta layetan Mezaçaoan declaradrazo-

Q 3 ten

*Tratacenda nola*

ten cerbayt veren hiricoey particular-  
 quiro han ofrecicenden sacrificioaren  
 mysterioac, eta alauer manacendu Syn-  
 nodoac lembicico libruan, yrurgarren  
 capituloan, cerengatic Latinic ezta-  
 quienac, eta leycen, nondic jaquinen-  
 du, eracusi ezpadrazote? eta ez jaqui-  
 tetic dator ambat caite, eta daynu, ece  
 auniz baytoaye Mezara, eta ezpayta-  
 quite certara, eta ez cerden Meza, eta  
 cerdē han ofrecicenden sacrificioa, eta  
 nola bearden ofratu, eta berce gauzac,  
 eta ala daude ylac bezala viotzas den  
 becanbates, ez tutelā obratan eçarcen,  
 Fedea, Esperança, eta Caridadea, eta  
 berce gauzaric alco, eguinen baylu-  
 quete baliacquite: eta ala Mezatic atra-  
 cendirade, ez ambat prouechurequi  
 nola atraco bayluquete baliacquite.  
 Ceyn da Christioa baliacqui nola Chris-  
 to gure luana Meza erratenden ho-  
 ros jaycicendela cerutic Aldarera, ce-  
 ruan gueldicendela, eta Mezan dau-  
 cagula presentean gueurequi etorri-  
 ric

*ençun bearden Meza.* 126

ric gure amoreacatic, eta guri onda-  
 fun eguiteagatic misericordias, eta on-  
 dasunes beteric, eta desseoarequi, eta  
 podorearequi verarequi munduā, ybil  
 ducenean, yduquitu çuenarequi, guri  
 gueuren becatuac barcaceco andiac,  
 eta auniz yçanagatic: ezpayluque ala-  
 baruco, eta adoratuco, eta graciaç ema-  
 nen laun ayn onari eguitendizquigun,  
 ondasun, eta mercheden gatic: eta ez  
 payluque sartunay vere viotzean, eta  
 onerici vere entraña gucies, eta cerui-  
 zatu nayluen gauza gucietan. Ceyn li-  
 çate atraco bayliçate Mezatic han ofre-  
 cicenden sacrificioa ofratu bague alas,  
 eta artara datorrenean cerutic aldare-  
 ra, ofreci drazoten vere Ayta eternoa-  
 ri, vere meregitu cizquigun obra, eta  
 ondasun guciequi: eta aren medios  
 otoytz eguin drazogun barcadrazqui-  
 gun gueuré becatu guciac, eta socorra  
 gaytzan gueuren necesidade gucietā  
 erremediacen gaytuela gucietatic, eta  
 dizquigun gueuren arimen saluaceco,  
 beard:



### *Tratacenda nola*

bearditugū ganza gaciāc Gauza ohee  
guciāc, eta bercesichere bay eguinen  
lituzquere baliāquizquite oray erran-  
diraden mysterioac. Argatic Apezec,  
eta Vicarioec, edo, edocēyn personec  
bayrute arimes cargū eguinbeçare Cō-  
cilioac, eta Synodoac manacenduena  
eracusteas Ygandebates mysterio bar,  
bercebates berce bar, eta ala berceac,  
ece hau eguin badedi bearden bezala  
arte gutibates baycic e7 padahere da  
gauza ciertoa aurquēduco dutela pro-  
uechua veren carguco dituzteneran,  
eta confessioac, eta comecaceac, eta  
ondafun guciāc eguinendituz-  
tela, obequiago.

*laungoycoac diuēla esquerrac,  
eta alabançac.*

# TABLA DE LOS CAPITVLOS

de Romance de lo que con-  
tiene este tratado,

(†)



**C**APITULO prime-  
mero, en que se expli-  
ca que sea Missa.

Capitulo segundo, de lo mucho  
que a Dios nuestro Señor agra-  
da la Missa, por el sacrificio  
que en ella se le ofrece.

Capitulo tercero, de la prepara-  
ción que se ha de hazer para oyr  
bien Missa, y la intencion que  
se ha de leuar, y con la reuerē-  
cia y deuocion que se ha de  
estar en ella.

Capitulo

## T A B L A.

**Capitulo quarto** lo que ha de hazer el que oye Missa desde el principio de ella hasta el Euan gelio. fol. 32.

**Capitulo quinto**, lo q̄ ha de hazer el q̄ oye Missa desde el Euāge lio, hasta el Prefacio. fol. 46.

**Capitulo sexto**, de lo que ha de hazer el que oye Missa desde el Prefacio hasta la consagra cion. fol. 60.

**Capitulo septimo**, de lo que ha de hazer el que oye Missa desde la Consagracion del pan y vi no hasta consumir. fol. 78.

**Capitulo octauo**, lo que ha de ha zer el que oye Missa, despues de la comunion hasta el fin de ella. fol. 95.

Capitulo

## T A B L A.

**Capitulo nono** quantos, y quan grandes prouechos se facan de oyr bien Missa. fol. 99.

**Capitulo dezimo**, de algunas co las que se han de hazer quan do se oye Missa, y como se aya de estar en ella. fol. 114.

Tabla

# EVSCARAS

## CO CAPITVLOEN

Tabla.



**L**EMBICICO Capituloa ceñetan adicera ematenbayta cerden

Meza.

**B**igarren Capituloa, çemba agra dacen çayon laungoycoari Meza ençutea, han ofrecicençayon sacrificioagatic.

**I**rurgarren Capituloa, cer eguin bearden len Meza ongui ençuteco, eta cer intécio eraman eta cer reuerencia requi, eta de uociore qui egon bearden.

**L**aurgarren Capituloa, cer eguin bearduen Meza ençutenduenac

## TABLA.

nac lembicitic alsí, eta Euan-  
gelioraño.

**B**orzarren Capituloa, cer eguin bearduen Meza ençutenduenac Euangeliotic alsí eta prefaciaraño.

**S**eygarren Capituloa, cer eguin bearduen Meza ençutenduenac, Prefaciotic alsí, eta Con-  
sagracionaño.

**C**aspigarren capituloa, cer eguin bearduen Meza ençutenduenac Hostia, eta Caliza consagrata, eta ariqueta Meza erratenduenac Iesu Christoren gorpuza, eta odola errecebitu arteraño.

**C**orzigarren capituloa, cer eguin bearduen Meza ençutenduenac


**TABLA.**

nac Meza erratenduenac Ie-  
 fu Christoren gorpuza , eta  
 odola errecebitu, eta azquene-  
 raño. fol. 97.

Bedracigarren Capituloa, cem-  
 bat , eta ceyn andiac diraden  
 Meza ongui ençutetic atracen  
 diraden prouechuac. fol. 106.

Amargarren Capituloa, cer eguin  
 bearden Mezacoan , eta nola  
 egon. fol. 121.

Fin de la Tabla.



Handwritten signatures and notes in a cursive script, including a large flourish at the top and several lines of text below.